



ABALTZISKETA

PILOTALEKUKO ARGIA PIZTEKO AUKERA ESKANTZEA

Abaltzisketako udalak 2017eko abenduaren 13ko bilkuran, beste hainbat puntuen artean, pilotalekuko argiaren erabilera aztertu da.

Alkateak dio, herriko hainbat haur eta gazte pilotalekua erabiltzeko fitxak erostea etortzen direla udalera eta herriko haurrentzako argia pizteagatik kanpokoei eta helduei bezala kobratzea ez zaiola egokia iruditzen.

Horregatik, proposatu du, gimnasioan bezala, pilotalekuko bazkide egitea, era xume batetan eta argia pizteko giltza ematea.

Azkenik, eztabaidatu ondoren, mahaikideek erabaki dute:

1. Pilotalekuko argia pizteko giltza emateko arautegia prestatzea, ondoren adierazten diren atalak jasoaz:

- Eskubidea: Abaltzisketan erroldatuak izango dute.
- Argia piztu eta itzaltzeko betebeharra izango dute eta beti ere heldu batekin joan behar da.
- Prozedura: Eskaera orria bete eta giltza emango zaio, sinatzen duena arduradun izango delarik.
- Prezioa: Hiru hileko eperako 15 €/familiako.

2. Erabaki hau 2018ko urtarrilean hasiko da indarrean.

3. Herritarrei erabakiaren berri ematea.

Beraz, interesa duzuenentzako deia luzatzen da, eta eskaera orria eskatzea udalera zuzendu dezakezue.

Abaltzisketan, 2018eko urtarrilaren 22ean.

Alkateak